

ESPERIENTZIAREN IZENA: Donostiako Emakumeen Etxea



OINARRIZKO DATUAK

- **Erakundearen izena:** Donostiako Emakumeen Etxea.
- **Erakunde mota:** Publikoa/Elkartea.
- **Sortze-urtea:** 2010.
- **Jarduera-sektoreak:**
 - Emakumeen aurkako indarkeria.
 - Parte-hartze politikoa.
 - Ahalduntzea.
 - Emakumeen eskubideen aldeko sentsibilizazioa eta eragina.
 - Ahalduntze ekonomikoa. Eta abar.
- **Egitura:** 2 langile eta 450 bazkide inguru.
Emakumeen Etxea hiru eragile hauek sostengatzen dute:
 - Emakumeen Etxea elkarteak
 - Donostiako Udaleko Berdintasun Departamentuak
 - Gipuzkoako Foru Aldundiak

Udalak proiektua kokatuta dagoen lekuko ekipamendua erabiltzen uzten die eta lekuaren dinamizazioa finantzatzen du (jendeari arreta eskaintzeko langileak). Lekuaren dinamizazioaz lanaldi osoko bi langile arduratzen dira. Horietako bat Berdintasun Departamentuari dagokio, eta bestea, berriz, Emakumeen Etxea elkarteari.

Gipuzkoako Foru Aldundiak lantegiak, ikastaroak eta abar finantzatzen ditu. Oro har, Emakumeen Etxeak diseinatzen eta sustatzen dituen jarduera guztiak.

Baterako kudeaketa-eredu hori aitzindaria da Gipuzkoan eta EAE osoan, eta ezaugarri horietako eredu duen Estatuko lehen Emakumeen Etxea da.

- **Kokapena:** Okendo kalea, 9 Donostia.
- **Webgunea:** <http://www.donostiakoemakumeenetxea.com>
- **Esperientziak jorratzen duen gaia:** Donostiako Emakumeen Etxea.
- **Jarduera eremua:** Eskualdea.

HARREMANETARAKO DATUAK

- **Telefonoa:** 943 483 470
- **Helbide elektronikoa:** info@donostiakoemakumeenetxea.com - berdintasuna@donostia.org

SINTESIA

ESPERIENTZIAREN DESKRIBAPEN OROKORRA:

Donostiako Emakumeen Etxea emakumeei elkartzeko, eztabaidatzeko eta hausnartzeko aukera eskaintzen dien leku bat da, betiere emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasun eraginkorra lortzeko politiketan, programetan eta proiektuetan eragiteko helburuarekin, bizitzako esparru guztietan. Zentzu horretan, gizon eta emakumeen arteko desberdintasuna guztiz desagerrarazteko borroka egiten duten talde eta elkarte guztiak artikulatzeko gune bat da, indarrak eta sinergiak sortzen dituen topagune bat.

Bestalde, Etxea mugimendu feminista hazteko eta sendotzeko leku bat da; izan ere, sentsibilizazioaren bitartez, eta Etxeko programazioari esker (lantegiak, solasaldiak eta abar), kide ez diren banako emakumeak Etxearen elkartearen bitartez artikulatzen dira, mugimendu feminista are gehiago indartuz.

TESTUINGURUA



Donostiako Emakumeen Etxea Donostiako emakume-talde eta mugimendu feminista askoren eskaera historikoa izan da. Proiektu hori urteetan zehar eztabaidatu da Udaleko hainbat solasaldi-eremutan: Emakumeak eta Hiria Foroan, eta Donostiako Berdintasunaren Kontseilu Sektorialean.

2008. eta 2010. urteen artean, Udaleko Berdintasun Departamentuak bere egin zuen eskaera hori. Horren ondorioz, hiriko emakume-taldeak eta talde feministak, udaleko solasaldi-foreoetan parte hartzen zutenak nahiz parte hartzen ez zutenak, ordezkaturata zeuden prozesu bat bultzatu zuen, elkarre-mugimenduaren partaidetza handituz. Prozesu horri esker, Donostiako Emakumeen Etxea izeneko proiektua gauzatzea erabaki zen. 2010eko urriaren 22an, Udal Gobernuak proiektua aurrera eramatea erabaki zuen.

Eztabaida-prozesuak bi urte iraun zituen: 2008an, bi bidaia egin ziren Donostiatik kanpora, antzeko esperientziak ezagutzeko helburuarekin, eta 2009an, hainbat eztabaida eta lantegi egin ziren Berdintasuneko Udal Kontseiluan. 2010ean, 5 hausnarketa-saio antolatu ziren emakume donostiar guztientzat, proiektu partekatua eta adostua lortze aldera. Azkenik, 2010eko azaroaren 10ean, Emakumeen Etxea ireki zen. Hala, talde feministek, emakume-elkarteek eta Berdintasun Departamentuak partekatzen zuten ametsa egi bihurtu zen.

JARDUEREI BURUZKO INFORMAZIOA



Ikasteko eta beren ezagutzak eta hausnarketak partekatzeko interesa duten emakume guztiei bideratutako **doako ikastaroak eta lantegiak**:

- Irakurleen Eskola Feminista.
- Gerrak euskal literaturan.
- "Ventaneras", emakumeek idatzitako literaturaren berrirakurketa.
- Praktika performatiboa: gorputza, prozesuak eta zaintzak.
- Zapalduen Antzerkia.
- Arte plastikoak.
- Batukada feminista.
- Xakea.
- Brikolajera.
- Ahalduntze teknologikoa.
- Taldeko kantu-tailerra
- Sexualitatea: "El sexo para el segundo sexo".
- Rap feminista.
- Clowna.
- Ahalduntze laborala.

Proiektuak:

Emakumeei beren burua ezagutzeko, eztabaidatzeko, ikasteko eta partekatzeko aukera ematen dieten beste topagune batzuk. Hainbat jatorritako emakumeen aisialdirako eta dibertsiorako lekuak dira, "indarkeriarik gabeko bizitza baten aldeko" emakumeentzako laguntza-taldea, eta esperientziak, gaitasunak, ezagutzak eta zerbitzuak partekatzeko lekua.

- Jatorri askotako emakumeentzako kulturarteko gunea
- Indarkeriarik gabeko bizitzaren aldeko emakumeak
- Denboraren Banku Feminista
- Aholkularitza, laguntza eta autolaguntza

Batzordeak - Lantaldeak:

Lan-batzordeak Emakumeen Etxearen elkarre-ehuna osatzen duten emakumeen ahalegin parte-hartzailearen emaitza dira. Horietan, Donostiako Emakumeen Etxearen ia programazio osoa diseinatzen eta sustatzen da. Horiek guztiek ahalduntzea, indarkeriaren kontrako borroka eta eragin politikoa lantzea dute helburu.

- Zinema Batzordea.

- Ekofeminismo Batzordea.
- Erasoen Aurkako Batzordea.
- Artikulazio Batzordea.
- Batukada Batzordea.
- Teknologia Batzordea.

Zerbitzuak:

Emakumeei eskaintzen zaizkien zerbitzu publikoak, aholkularitza juridikoa, ikasketak balioztatzeko informazioa, sexuaren inguruko informazioa eta aholkularitza, eta abar.

- Aholkularitza juridikoa.
- Aholkularitza juridikoa eta esku-hartze soziala.
- "Iguálate", ikasketak homologatzeko kanpaina.
- Ahduntze-taldeak
- "Biluzik mundura": Sexualitateari buruzko informazio- eta aholkularitza- zerbitzua.
- Norbanakoaren jabekuntzarako gunea.
- Ordenagailu- eta Internet-zerbitzua.
- Etxeko langileentzako aholkularitza.